



LANDAOLA

SARIAK

VIII. LANDAOLA SARI BANAKETA EKITALDIA
PRENTSA DOSSIERRA

AURKIBIDEA

Landaola Federazioa	3
VIII. Landaola sariak	4
Saridunak	
Erakunde Pribatuaren saria	
ERRASTIKO ESKOLA	5
Erakunde Publikoaren saria	
LEGAZPIKO UDALA	6
Emakumeak Landa Eremuan Saria	
JOSEBE LIZEAGA LUJANBIO	7
Urteetako ibilbideari saria	
MANUEL ODRIA IBARGUREN	8
Sarietarako hautagaiak.....	10/19
Dokumentazio eta weborriak	20

LANDAOLA FEDERAZIOA

Landaola, Gipuzkoako landa eremuaren garapenaren alde lan egiten duen elkarte da. Irabazi asmorik gabeko erakunde hau, Gipuzkoako sei Landa Garapen Elkartek osatzen dute: Behemendik, Deba-Garaiak, Debemenek, Goimenek, Tolomendik eta Urkomek.

Landa ingurunearen iraunkortasuna bermatu eta sustatu asmoz, azken hamarkadetan tokian tokiko Landa Garapen elkarteak gaur egungo behar eta baldintzetara egokitzen joan izan dira. Euskal Autonomia Erkidego mailan, lurraldeka, federazioetan antolatuta egiten da elkarlana eta Gipuzkoako lurraldean Landaola Federazioaren bidez, Landagune Mahaiak elkartzen ditu erakunde desberdinak. Aipatutako tokiko sei Landa Garapen Elkarrekin batera, mahai horretan parte hartzen dute Hazi Fundazioko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Landa Garapen ordezkariak.

Elkarrekin landa-ingurune bizi eta lehen sektore moderno baten alde lanean dihardute. Erronka handiko lana, ezbairik gabe. Landaolan badakite gaur ereindako haziak biharko fruituak ematen dituela.



LANDAOLA
GIPUZKOAKO FEDERAZIOA

VIII. LANDAOLA SARIAK

Aurten ere, Gipuzkoako landa garapen proiektuei errekonozimendua egin asmoz, Landaola Federazioak VIII. Landaola Sariak antolatu ditu. Hauek izan dira ekimen sarituak:

Erakunde Pribatuaren saria

ERRASTIKO ESKOLA

Naiara Uriarte eta Xabi Abasolo

- Erakunde Publikoaren saria

LEGAZPIKO UDALA

**Arrobi: erabilera tradizionalak ondare naturalaren
kontserbazioarekin uztartuz**

- Emakumeak Landa Eremuan saria

Josebe Lizeaga Lujanbio

- Urteetako ibilbideari saria


Manuel Odria Ibarguren

Ondorengo orrialdeetan jaso da izendatutako proiektuen inguruko informazio zabalagoa.

ERAKUNDE PRIBATUAREN SARIA

ERRASTI ESKOLA

Naiara Uriarte eta Xabi Abasolo



Errastiko Eskola



Errastiko Eskola Arrasateko Bedoña auzoan kokatutako hezkuntza-proiektua da, eta lehen sektorea zein landa eremua ezagutzeko eta sustatzeko helburua du. Ikasleek naturarekin harreman zuzena izanik, jasangarritasuna eta bioaniztasuna lantzen dituzte modu praktikoa eta ludikoa. Eskolaren jardura nagusietako bat Errastiko okindegia da. Bertan, ogi eta gozo ekologikoak artisau eran ekoizten dira eguraldean.

Hiru arlo nagusi jorratzen dira:

1. Etxaldera bisita gidatuak: okintza, baratzea eta natura esperimendatzeko.
2. Diziplina anitzeko unitate didaktikoak, Lehen Hezkuntzarako diseinatuak: Errastiko Etxaldea izenburupean. Unitate didaktiko horietan; baserria, Bedoña,

okintza eta baratza lantzen da euskara, matematika, gizarte eta natur zientziak ikasgaien baitan dira. Saio hauek bi orduko iraupena dute, eta ikasleen erritmo eta ikastetxeen beharretara egokitzen dira.

3. Bertako zein sasoiko produktuekin osatutako sukaldaritza tailer osasuntsuak. Errastiko Eskolak, horrela, ikasleei lehen sektoreko ezinbesteko elementuak hurbiltzen dizkie, esperimendazioaren bidez ikaskuntza esanguratsua sustatuz.

Info gehiago:

Instagram: @errastikoogia

Facebook: Errastiko ogia

www.errastikoogia.com

Kontaktua: 646820857

ERAKUNDE PUBLIKOAREN SARIA

Legazpiko Udala

Arrobi: erabilera tradizionalak ondare naturalaren kontserbazioarekin uztartuz



Legazpiko Udala, hainbat eragilerekin elkarlanean (Arrobiko Ganaduzale Elkartea, Foru Aldundia, Etorlur, Naturzaindia eta Paisaia Fundazioa), Arrobi onura publikoko mendiko lur sailak berreskuratzeko proiektua jarri du martxan. Egitasmo honen helburu nagusia da Arrobiko habitatak babestea eta abeltzaintza tradizionalarekin uztartzea, naturaren eta landa-jardueren arteko oreka bilatuz.

Horretarako, ameztien azalera handitzea, larreen eta basoen osasuna hobetzea, espezie

mehatxatuak babestea eta zohikaztegiak berreskuratzeko dira lan ildo nagusiak. Gainera, ganadu karga egokituz, larreak modu jasangarrian erabiltzearen alde egiten da. Ekimenak adostasuna eta elkarlana ditu oinarri, abeltzaintza eta ingurumenaren zaintza uztartuz. Horrez gain, proiektu honek eredu izan nahi du, etorkizunean beste babesgune batzuetan ere aplikatzeko.

Info gehiago:
www.legazpi.eus

EMAKUMEAK LANDA EREMUAN SARIA

Josebe Lizeaga



Josebe Lizeaga Astigarragako Gartziategi baserrian jaio zen, eta bere ibilbidea beti egon da lehen sektoreari eta baserritarren elkartasunari lotuta. Gaztetatik hainbat elkartetan parte hartu du, baserritarren profesionalizazioa eta elkarlana sustatzeko helburuarekin.

Bere lan ibilbidea GIFE elkartearen hasi zuen, baserriz baserri esne-neurketak egiten eta datuak jasotzen. Landa-lan horretan, Gipuzkoan “Baserriko Esnea” elkartearen sortzeko beharra ikusi zuen, eta bere ekimenez ezarri zen, salmenta zuzena indartzeko lanean arituz.


Aurrerago, esne-kontrola eta baserrietako hainbat zerbitzu uztartzeko helburuarekin, GIABEKO enpresa sortu zuten, eta bertan bazkide eta langile bihurtu zen. Bere lanari esker, baserritar askoren eguneroko jardunean hobekuntzak txertatu ziren, eta sektoreko profesionalizazioan aurrerapauso garrantzitsuak eman ziren.

Baserriz baserri izandako harremanetan, emakumeek lehen sektorean zuten ikusgarritasun falta agerian geratu zitzaion. Horri erantzuteko, “Baserriko Emakumeen Elkarte” (EBEL) sortu zuen, sarea indartzeko eta emakume baserritarren ahalduntzea sustatzeko.

Berrogei urte baino gehiagoko ibilbidean, Josebe Lizeagak baserritarren elkartasuna, profesionalizazioa eta emakumeen protagonismoa sustatu ditu. GIFE eta GIABEKOko langile gisa egindako lanaz gain, sektorean bide berriak jorratu eta elkarlana indartzeko hainbat ekimen bultzatu ditu. Horren erakusgarri dira “Baserriko Esnea” eta “Baserriko Emakumeen Elkarte” bezalako proiektuak, baserritarren etorkizuna indartzeko ekarpen garrantzitsuak bihurtu direnak.

URTEETAKO IBILBIDEARI SARIA

Manuel Odria Ibarguren



Manuel Odria Ibarguren 1943an jaio zen, Azpeitiko Odria auzoko Odria baserrian, sei anai-arrebako familia batean. Lehen hezkuntza maristetan jaso zuen, eta 12 urterekin Hondarribiko seminaria joan zen. Hala ere, fraile izatea ez zenez bere bokazioa, baserrira itzuli zen, familiak bere beharra baitzuen.

Bere ibilbide profesionalan, EHNE (1977) eta ENBA (1991) sindikatuen sorreran parte hartu zuen. Azpeitiko Udalean zinegotzi izan zen landa eremuko gaietan, eta 1987an Urkome Gipuzkoako Mendi Nekazaritzako gune pilotu gisa eratu zenean, bazkide eratzaileetako bat izan zen, lehenengo

Zuzendaritza Batzordean parte hartuz. Urte luzez Urkomeko zuzendaritza batzordean aritu zen, eta 1992tik 2008ra arte erakundearen kudeatzaile izan zen. Bere lanaren bidez, baserri bideen hobekuntza eta azpiegituren kudeaketan lagundu zuen. Gainera, kanpoko esperientziak ezagutzeko aukera izan zuen, Frantzia, Ingalaterra, Eskozia, Kanada eta Israel bezalako herrialdeetara bidaiatuz. Bidaia horietan jasotako ezagutza Gipuzkoako landa garapenean aplikatu zuen, nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapenean ekarpen garrantzitsuak eginez.

SARIETARAKO HAUTAGAIK

Landaola Federazioa osatzen duten sei landa garapen elkarteetako ordezkariak, Landaola Sarien VIII. edizioko oinarriak, irizpideak eta saritutako proiektuak adostu dituzte. Sariak emateko garaian, honako alderdiak kontuan hartu dituzte: proiektuak eredugarri izateko dituen baldintzak, proiektuak eragiten dion landa eremuko biztanlego eta sortutako lanpostu kopurua, duen zabaltzeko aukera eta izan duen oihartzuna, edota eskualdeko landa garapen elkartearekin izandako lankidetzak.

Guztira 12 proiektu aurkeztu dira Landaola Sarietarako. Lehendabizi landa garapen elkarteetako ordezkariak euren hautagaiak aurkeztu dituzte eta bigarren fase batean adostutako irizpideak jarraituz, irabazleak izendatu dituzte.

Ondorengo orrialdeetan jaso da izendatutako proiektuen inguruko informazio zabalagoa

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Behemendi

HENASE, Hernaniko Nekazari eta Abeltzainen Sustapenerako Elkartea



HENASE

HENASE (Hernaniko Nekazari eta Abeltzainen Sustapenerako Elkartea) Hernaniko lehen sektorea bultzatzeko sortu zen, nekazari eta abeltzainen beharrei erantzuteko eta haien egoera ekonomiko zein soziala hobetzeko helburuarekin. Elkartek baserriak eta horiei loturiko jarduerak balioan jarri nahi ditu, haien desagerpena saihestu eta jarduera berrien zabalkundea sustatuz.

Halaber, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanak sendotzea bilatzen du, administrazio publikoen eta beste erakundeen partaidetza sustatuz, betiere elikadura burujabetza helburu izanik. Sentsibilizazio soziala ere bultzatzen du,

nekazaritza eta abeltzaintzari buruzko informazioa zabalduz eta sektorearen inguruko ezagutza eza gainditzen lagunduz. Ingurumenaren eta naturaren zaintza ere funtsezko ardatza da elkartearentzat, nekazaritza eta abeltzaintzaren biziraupenerako ezinbestekoak baitira. HENASEren ekimenez, Herrilur denda sortu da, bertako produktuen merkaturatzea eta kontsumoa sustatzeko, eta Nekazaritza Eskola, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak sektorean trebatzeko eta gaitzeko.

Info gehiago:
Behemendi Asociación de Desarrollo Rural
www.behemendi.eus

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Debemen

GOXART OBRADOREA/ Leire Egaña eta Aitor Ruiz



Duela hamabost urte inguru, Leire Egaña eta Aitor Ruiz bikoteak gozogintzan abiatu zuten bide berri bat, aurrez esperientziarik izan gabe. Hasieran, Mutrikun zuten gozo-dendan beste obradore batzuetatik ekarritako produktuak saltzen zituzten, baina hornikuntza arazoak zirela eta, Leirek gozogintzako ikastaroak egitea erabaki zuen. Formakuntza hori jaso ondoren, bikoteak Elgetako "Galgorri" obradorea hartu zuen, eta urte osoan San Blas opilak egiten zituzten. Obradorea txiki geratu zitzaien, eta 2022an

Mutrikuko Mijoa auzoan 600 metro koadroko instalazio berria zabaldu zuten. Bertan, artisau eran ekoizten dituzte gozokiak, izozkiak eta bonboiak, kalitatezko osagaiak eta inguruko hornitzaileak erabiliz.

Gaur egun, Mutrikun eta Deban denda bana dute, eta etorkizunean produktu berriak eskaintzea eta obradorean bisitak antolatzea dute helburu.

Info gehiago:

www.goxart.com

Facebook: Obrador Goxart

Instagram: @obradorgoxart

Kontaktua: 611715979

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Goimen

ERRO, Gaztaren ibilbidea



Idiazabal Gaztaren Ibilbidea (GR-283) 2014an Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Mendi Federazioak sustatutako ibilbide turistikoa da. Ibilbideak, Idiazabal gaztaren tradizioa ezagutzeko eta Gipuzkoako barnealdeko paisaia ederrez goatzeko aukera ematen du. 96 kilometroko luzera du eta sei etapetan banatuta dago, Goierri, Urola Garaia eta Deba Goiena bailarak zeharkatuz. Aizkorri-Aratz eta Aralar parke naturalak lotzen ditu, artzaintzaren eta gaztagintzaren kulturaren inguruko esperientzia paregabea eskainiz. 2014tik, mila pakete turistiko baino gehiago saldu dira, eta 2023an, Viajes National

Geographic Irakurleen Sarietan Espainiako Ibilbide Gastronomiko Onenaren saria jaso zuen. Ibilbidea Ordizian hasten da, eta D'elikatuz Zentroan informazioa eta materiala eskuratu daitezke.

Eta bakoitza egun bakarrean egiteko pentsatuta dago, eta ostatu aukera zabala eskaintzen du, hala nola hotelak, nekazalturismoak eta aterpetxeak. Bidean zehar, gaztandegiak bisitatu, artzain tradizioak ezagutu eta tokiko gastronomiaz goatzeko aukera eskaintzen da.

Info gehiago
www.delikatuz.com

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Tolomendi

ARGAIA GOENA BASERRIA



Argaia goena baserria Amezketan kokatuta dago. Proiektuaren sustatzaileak (Iñaki eta Aintzane) 2016ean ekin zioten ekimenari.

Txikitatik baserriarekin harreman zuzena izan dute eta horregatik garai bateko baserriari bizia ematea erabaki zuten.

Txikitasunetik, dibertsifikazioaren aldeko ahalegina egin dute, txerriekin, behiekin, oilaskoekin eta ardiekin.

Gaur egun, zuzeneko salmentaren bidez saltzen dute txerri eta txekor okela.

Animaliak Argaia Goenan jaio, aire librean hazi eta baserrian duten harategian haragi freskoa zein produktu artisauak lantzen dituzte, ondoren, zuzeneko salmenta bidez

merkaturatzeko.

Argaia Goenako okela erosten duten bezero finkoei bisita gidatu bat eskaintzen zaie urtero, baserria bizitu, euren kontsumoari esker urtetik urtera izaten ari den eboluzioa ikusi, jaten duten okela nola hazten den ezagutu eta beraiekin harreman sarea sortzeko asmoz.

Honez gain, 2023 urtean, Amezketako San Martingo etxolan hanburesak eskaintzen dituzte, uda garaian.

Info gehiago:

www.argaia.goena.eus

Facebook: Argaia Goena Argaia Goena

Instagram: @argaia_goena_tlfnoa.650662035

Kontaktua: 650662035

ERAKUNDE PRIBATUAREN HAUTAGAIK

Urkome

AMALDA BIOBOTANIKA / Aiora Urbietta



Aiora Urbietta Eizagirrek 2022an sortu zuen AMALDA BIOBOTANIKA proiektua, sendabelarren ekoizpen ekologikoa sustatzeko asmoz. 2024an, "Geure gorputzean eta etxean burujabe" liburua argitaratu zuen, lau urtaroretan banatutako errezeta-bilduma bat, inguruko baliabide naturalak modu egokian aprobetxatzeko. Proiektuaren helburu nagusia inguruko baliabide naturalak ezagutu eta modu egokian erabiltzea da, etxean egunerokoan erabiltzen ditugun produktu kutsakorrak

produktu ekologikoekin ordezkatzuz. Horrez gain, auzolana eta sarea sustatzea du xede, bereziki emakumeen artean, burujabetza indartzeko. Etorkizunean, sendabelarrekin lotutako proiektu gehiago eta ekimen komunitarioak garatzea du asmo.

Info gehiago:

Instagram: @aiora_aira

amaldabiobotanika@gmail.com

Kontaktua: 653258328

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Oiartzungo Udala

Baserrietako ordezkapen zerbitzua



Oiartzungo Udalak ekimen berritzailea abiarazi du herriko lehen sektorea babestu eta indartzeko. Behemendi Landa Garapen Elkartearen bidez, baserri lanetan trebatutako langile bat kontratatu du, herriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatzeari doako ordezkapen zerbitzua eskaintzeko. Langile hau laguntza behar duten ustiatzeari joango da, bertako eginkizunak betetzera.

Nekazaritzan eta abeltzaintzan aritzen direnek urteko egun guztietan aritu behar izaten dute ganadua, baratza, soroak eta larreak zaintzen. Lan-karga horrek zaildu egiten du oporrak hartzea

edo gaixotasun kasuetan atseden egitea. Udalaren ekimenari esker, lehen sektorean aritzen direnek lan-karga arintzeko aukera izango dute, langile espezializatu batek ustiatzeari beharrezko eginkizunak beteko baititu.


Proiektu hau herriko nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak babesteko, eta ekoizle berriek sektorean hasteko bidea errazteko jarri da martxan.

Info gehiago:
www.oiartzun.eus

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Oñatiko Udala

Oñatiko toponimia jaso eta ekarpenak egiteko aukera uzten duen mapa interaktiboa



Oñatiko Udalak herriko 2.855 toponimo bildu eta mapa digital interaktibo batean kokatu ditu, herritar orok kontsultatu ahal izateko. Oñatiko erreka, baso, mendi, etxe eta hainbat tokiren izenak bildu dira, hamarkadatan egindako lanen emaitza jasoz. Proiektua 1983ko mapen digitalizaziotik abiatuta gauzatu da, eta helburua zerrenda aberastea eta osatzen jarraitzea da, belaunaldien arteko elkarrizketa sustatuz eta baserrietako transmisioa indartuz. Udalaren webgunean mapa interaktiboa kontsultatu ahal da eta jendearen ekarpenak jasotzeko aukera ere badago. Bertan, identifikatuta dauden 2.855

toponimoak kokatu dira. Teknologia berriei esker, toki-izen bakoitzari buruzko informazioa eskuragarri egongo da, eta herritarrek ekarpenak egin ahal izango dituzte, jasotako toponimoen aldaerak (adibidez, ahozko bertsioak) zehaztuz, edo toponimo berriak proposatuz.

Proiektua bilera ireki batean aurkeztu zaie herritarrei, non mapa interaktiboaren funtzionamendua eta ekarpenak egiteko prozedura azaldu diren.

Info gehiago:

<https://herrigis.gis-cdn.net/oinati/indexT.html>

www.oñati.eus

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Eibarko Udala

Basarrixa Hurretik



Basarrixa Hurretik programa Eibarko eskola-komunitateari zuzendutako ekimena da. Ekimen honen helburu nagusia Eibarko ikasleei herriko landa-ingurua eta lehen sektorea ezagutzera ematea da, tailer eta ibilbide didaktiko monitorizatuen bidez.

Proiektuan, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta DBHko 1. zikloko ikasleek hartzen dute parte, baserriarrengandik zuzenean ikasten eta sektoreak Eibarren duen egungo egoera ezagutuz.

Baserrietarako bisitek planteamendu praktikoa dute, eta curriculumeko hainbat ikasgaietara bideratuta daude:

- Lehen Hezkuntzan, Natura Zientziak eta Gizarte Zientziak lantzen dira.
- DBHn, Biologia-Geologia

eta Geografia.

Ibilbideen artean hainbat gai jorratzen dira, hala nola, ardiak eta gaztagintza; belazkuntza, basoa eta paisaia; baserriar berriak eta lurzorua azterketa; garaian garaikoa eta salmenta zuzena; baserri bizitza eta barazkigintza; errebal merkatu plaza.

Ibilbide bakoitzerako fitxa espezifikoak prestatu dira, curriculum eta hezkuntza-helburuak kontuan hartuta. 2023-2024 edizioan, 5 ikastetxeetako ia 400 ikaslek hartu dute parte, eta guztira 19 bisita egin dira.

Info gehiago:

www.eibar.eus

Kontaktua: 943708451

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Berastegiko Udala

Be! Artzain Kultura



Berastegiko Udalak lehen sektorea sustatzeko ekimenak jarri zituen martxan, mendiko larreen hobekuntza proiektuarekin abiatuta. Larre publiko batzuk berreskuratu eta hainbat hektarea eraldatu ondoren, tokiko ganaduzaleek Berastegiko Ganaduzaleen Elkarte sortu zuten, larreen erabilera antolatzeko. Lankidetza horrek oinarri sendoa jarri zuen, eta hortik abiatuta, Udalak egitasmo berriak sustatu zituen. Prozesu horren baitan, azterketa antropologiko bat egin zen, eta haren ondorioz sortu zen 2023an BE! Artzain Kultura proiektua, artzain kulturaren balioa

nabarmentzeko.


Berastegin artzaintzak tradizio handia du, 3.000 ardi inguruko artalde txikiekin, eta egitasmoaren helburua gazta eta arkumeari balioa ematea da, bertako produktuak eta kultura zabalduz. Ekimen honen baitan "BE!" liburua eta "BE! Asteburua" antolatu dira, artzain kulturaren aberastasuna erakusteko. Egitasmoak, lehen sektorea sustatzeaz gain, tokiko produktuei balioa ematea eta artzain kulturaren ondarea zabaltzea ditu helburu.

Info gehiago:
www.berastegi.eus

ERAKUNDE PUBLIKOAREN HAUTAGAIK

Azkoitiko Udala

Azkoitiko Berdura Plazaren eraberritzea



Azkoitiko Berdura Plaza herriko plazan kokatzen da, 1903an eraikitako antzinako eskolen eraikinarekin batera; 1926an euskal arkitektura berriaren estiloan eraikitako azoka berezia gehitu zitzaion. XVI. mendetik, espazio hau herritarren topagune izan da, jai, merkataritza eta gizarte ekintzen lekuko. Egunero, astelehenetik larunbat eguerdira arte, Azkoitia eta inguruetako ekoizleek garaian garaiko produktuak eskaintzen dituzte bertan: fruta, barazkiak, ogia eta gaztak, besteak beste. Gainera, harategi eta bestelako jaki nahiz zerbitzuen postu finkoak ere badaude.

2024an, Udalak espazioa eraberritu zuen, Europako Next Generation funtsen laguntzarekin, azokaren erakargarritasuna eta erosotasuna hobetzeko. Teilatuaren

zati bat eta ateak berritu dira, atzealdeko irisgarritasuna hobetu da, eta argiztapen berria instalatu da. Halaber, ekoizleen mahaiak aldatu eta ate automatikoak jarri dira, neguko hotz-korronteak saihesteko. Etorkizunean, barrualdean berrikuntzak egitea aurreikusten da, elkarbizitzarako espazio bat sortzeko eta bertako zein garaiko produktuen sustapena indartzeko.

Info gehiago:

- **Instagram:** azkoitiaudala
- **Facebook:** Ayuntamiento de Azkoitia
- **X:** @Azkoitikoudala
- **Youtube:** azkoitikoudala
- Kontaktua:** 943 08 00 80

DOKUMENTAZIOA ETA WEBORRIAK

FACEBOOK: Landaola
X: @Landaola_
YOUTUBE: LANDAOLA GIPUZKOA
INSTAGRAM: @Landaola_

LANDA GARAPEN ELKARTEEN WEBORRIAK:

www.landaola.eus
www.behemendi.eus
www.debagaraia.eus
www.debemen.eus
www.goimen.org
www.tolomendi.eus
www.urkome.eus